

# txintxarri



## 2.500 puntu Lasarte-Orian

Hasi da Euskaraldia, 11 egunez hizkuntza ohiturak iraultzeko festa / 2-3

## Bukatzen ez den amesgaiztoa

Igandea indarkeria matxistaren aurkako eguna da. Biktima batek pasatako infernua kontatu dio TXINTXARRI-ri / 6-8

Zabaletako pilotalekua inaguratzeko egun osoko ekitaldia egin dute, giro onean / 10-11

**2 mó graduatu**  
erreflexuen aurkako  
lenteekin

**99€**

Gure betaurreko guztiak  
bilduma berrietakoak dira



Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.  
Ezingo da heste eskaintza batzuetan erabili.

R.P.S. 175/15 I.L.G.

Kale Nagusia, 15  
Tel.: 943 37 74 55  
**LASARTE-ORIA**

**MULTIOPTICAS**  
lehen zerbitzu optikoetan

www.multiopticasgipuzkoa.com   

# Guztiak prest 11 egunez euskaraz egiteko

Euskaraldia hasteko musika eta umorez betetako ekitaldiak egingo dituzte gaur arratsaldean, ostiralez, eta bihar goizean, larunbatean. Hamaikakoa eta beste hainbat eragile izango dira oholtzan, herritarrek txapak jasotzen dituzten bitartean

## Txintxarri

Ahobizi eta belarriprest txapak janzteko eguna iritsi da. Euskaraldia, hizkuntza ohiturei astindua emateko ekimena, martxan da. Gaur, ostirala, hasi eta abenduaren 3ra arte, *ahobiziez* eta *belarriprestez* beteko da Euskal Herria. Lasarte-Orian 2.500 herritarrek baino gehiagok egin dute hautua festa horretan parte hartzeko.

Ekimenari hasiera emateko Lasarte-Orian *Jantzi zank!* ekitaldia antolatuta dute, gaur, ostirala arratsaldean, eta bihar goizean. Lasarte-Oriako hamaikakoa eta herriko hainbat eragilek parte hartuko dute Okendo plaza musika, kolore, umorez eta ezustekoz beteta.

Gaur arratsaldean, 17:30ean, hamaikako kideek Euskaraldiko bidaira ongi etorria egingo diete herritarrei. Bertsoa eta dantza izango dira jarraian, bertso eskolako gaztetxoek eta Kukuka Antzerki eta dantza eskolako dantza taldearen eskutik. *Heldu da onena*, abestia estreinekoz entzungo da Lasarte-Orian. DBH 1. eta 2. mailako gazteak ere oholtzara igoko dira.

Hori guztia ekintza nagusiaren aurrekari izango da. Ane



Hamaikakoa eta eragileek ongi etorri beroa egingo diote Euskaraldiari. TXINTXARRI

Igartipuntuk Lasarte-Oriako Euskaraldiari hasiera ofiziala emango dio. Horretarako, *txapinazoa* eta *globokada* egingo dituzte Okendo plazan.

Baina ez da horrekin jaia amaituko; Dinbi Banda batukadaren erritmoak entzun eta Erketz dantza taldea eta Semblante Andaluz elkarteko Gitanillas dantza taldearen emanaldiez gozatu ahalko dute herritarrek.

Euskararen 9. Maratoiko ikur bihurtu zen Safri Duoren dantzarekin gorputza mugituko dute, egunari amaiera emateko.

Larunbata goizean etxeko txikiek eta ez hain txikiek izango dute aukera ongi pasatzeko, festa giroan.

Lehenik, Porrotx eta bere lagunak eta Mary Jongen bisita izango da. Emakume horrek balkoietako puntuen errekorrak aztertzen ditu, eta herriko azterketaren emaitza azalduko du. Tartean, Jalgune elkarteko lagunak *Pausoka pausoka* abestia dantzatuko dute. Ttirriki Ttarrakak erromeria doinuak eskainiko ditu. Xumela koruaren emanalditxoak izango da eta Euskaraldiko doinuek beteko

## Azaroaren 23 eta 24ko egitaraua

### Azaroaren 23a, ostirala

#### Puntu Puntu...

**17:30ean**, Ongi Etorri Euskaraldiaren bidaira.

**17:45ean**, Bertso eskolako bertso doinuak.

**18:15ean**, Kukuka Antzerki eta dantza eskolako Dantzarinak.

**18:30ean**, Heldu da onena.

**Jarraian**, DBH 1-2ko gazteak zuzenean.

#### Txapinazoa!! Euskaraldion!!

**19:00etan**, Txapinazoa, Ane Igartipunturen eskutik.

**19:15ean**, Globokadak.

**19:40ean**, Dinbi Bandaren Kunbia.

**20:00etan**, Erketzaldia.

#### Hartu kontrola!! Egizazu Rola!!

**20:30ean**, Hartu kontrola

**20:40ean**, Semblante

Andaluzeko Gitanillas taldearen emanaldia

**21:00etan**, Safri Duo

### Azaroaren 24a, larunbata

#### Ttipi Ttapa! GoaTZEN!!

**11:00etan**, Euskaraldion

**11:15ean**, Porrotx eta bere lagunak.

**Jarraian**, Jalgune elkarteko lagunak dantza.

**12:00etan**, Mary Jongen bisita.

**12:15ean**, Ttirriki Ttarrakaren erromeria.

**13:00etan**, Xumela koruaren emanaldia.

**Jarraian**, gerria astintzeko aukera...

Egioizu euskaraz Ahoa bizi-bizi

Izan Puntu

**13:30ean**, magia ikuskizuna eta Safri Duo.

dute plaza. Magia ikuskizun bereziak eta Safri Duoren dantzak emango diote amaiera ekitaldi horri. Antolatzaileek zehaztu ez duten arren, Euskaraldiak irauten dituen 11 egunetan ere mota guztietako ekintzak egingo dira.

Oholtzan ekintzak dauden bitartean, herritarrek haien

txapak jasoko dituzte plazan egongo den gune berezian. 11 egun hauetarako gomendioak ere jasoko dituzte.

Bestalde, oraindik ekimenean izena eman ez duten herritarrek parte hartzeko aukera dute. Gunean bertan eskuorriak izango dituzte *ahobizi* edo *belarriprest* izateko.



**Aitor Lasa**  
*Ahobizi*

Euskaraz bizi naiz, baina konturatzen naiz ni neronek huts batzuk egiten ditudala; lehen hitza euskaraz egitea, ezagutzen ez duzun horrekin ere. Ohitura hori hartu eta mantentzea ona izango litzateke. Gainera, txaparen aitzakian, ea lortzen dudan ezagun batzuekin euskaraz egitea. Betidanik gaztelaniaz egin dugu eroso delako. Zaila da ohiturak aldatzea, baina saiatuko gara.



**Konsuelo Yarza**  
*Belarriprest*

Senarrarekin gaztelaniaz egiten dut. Seme alabekin batzuetan euskaraz, bestetan gaztelaniaz. Kanean gaztelaniaz hitz egiten dut. Baina 11 egun hauetan, ahal dudan heinean, euskaraz erantzuten saiatuko naiz. Eta gerora ere, jarrera hori mantenduko dut. Euskaraz egiteko jarrera piztu behar da, bestela hizkuntza galdu daiteke.



**Karmele Quintela**  
*Ahobizi*

Euskaldun berria naiz. Sei urte dira euskara ikasten ari naizela. Euskaraz ulertzen dut, baina asko kostatzen zait hitz egitea. Euskaraz dakitenekin euskaraz egiten dut. Tamalez, etxean gaztelaniaz egiten dugu, senarrak euskaraz ez dakielako. Orain pausoa emango dut. Euskaraz egingo dut guztiekin, eta etxean, alabarekin behintzat, egin ahalko dut.



**Patxi Unanue**  
*Belarriprest*

Elkarrizketa batean euskaraz hasi naiteke, baina gero arazoak ditut jarraitzeko, eta gaztelaniara jotzen dut. Horregatik, oso gubxitan egiten dut euskaraz, eta normalean ezagunekin. 11 egun hauetan jendeak niri euskaraz hitz egitea nahi dut; ni euskaraz erantzuten saiatuko naiz. Era horretara, gainera, hitz eta esamolde berriak ikasi ahalko ditut.

# Loraldiko anekdotak

Azaroaren 10eko larunbatean 160 boluntario ethez etxe ibili ziren Euskaraldiari buruzko informazioa eta puntuak banatzen, herritarrek aktibatzen. Bitxikeria ugari bizi zituzten; hauek dira horietako batzuk

Kaixo, Euskaralditik gatoz, ezagutzen duzu Euskaraldia? "No te entiendo..."  
Eta atzetik semea edo alaba: "Nik bai!!! Nik badakit zer den, eta badakit euskaraz"

Adinekoen istorioak. Nola aspaldian euskaraz ez zieten hitz egiten uzten, eta egiten bazuten, zer ondorio zituzten.

Esperientzia polita izan zen jendearekin euskaraz hitz egitea. Oso esperientzia ona. Niretzat erronka bezelakoa izan da euskaraz kalean aritzea, euskaldun berria naizelako. Zoragarria izan da, benetan. Bukatzeko, bazkaria familia eta lagunekin, giro ederrean. Oso pozik nago".

Aitona batek esan zidan: "Llevo 65 años aquí y no he aprendido, pero ahora me da envidia".

Gizon heldu batek etxe barrutik "¡No estoy!" oihukatu zigun txirrina jo genionean.

Etxe batean atea itxita azaldu behar izan genuen zer zen Euskaraldia, barruan zegoen emakume helduak ez zuelako atea ireki nahi. Hala ere, adi entzun zuen gure azalpena, eta ondoren, poltsa zintzilik uzteko eskatu zigun.



## Zozketa!

Ttakuneko bazkideen artean!

Pirritx, Porrotx eta Marimotots-en MUSUA disko-liburua eta FAMILIA MILAKOLORE diskoa zozketatuko ditugu.

Eman izena azaroaren 26a baino lehen harpidetza@ttakun.eus helbidean, bulegoan, 943371448 zenbakira deituta edo 646824466 Whatsapp-ean.



@TtakunEE



# Turkia



IRTEERA 2019ko ekaina

Noaok gidatutako talde bidaiak. Lasarte-Oriatik irtenda.

T.: 943 373 613 • info@noaok.eus • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria



Ohi bezala, talde argazki erraldoia atera zuten eskertza ekitaldian parte hartu zuten pertsonak, bukaeran. TXINTXARRI

# Testigantzak jaso, eskerrik beroenak eman

Jo eta ke jarraitzen du lanean Islada Ezkutatuak taldeak, 1936ko altxamendu militarrean eta 1940eko hamarkadan gertatutakoak azaleratzen. Garai horietako lekukotza zuzenak aurten eman dituzten herritarrei eskerrak eman dizkiete

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Lau urte daramatza Islada Ezkutatuak taldeak 1936ko altxamendu militarra eta 1940eko hamarkada ikertzen, eta Lasarte-Orian izan zituen ondorioak azaleratzen. Asko laguntzen diete herritarrek ematen dizkieten testigantzek. Orain arte 80 bat bildu dituzte: elkarrizketa liburu bat argitaratzekotan dira 2019an. Horietatik zortzi aurten jaso dituzte, eta, aurreko urteetan bezala, udaletxeko pleno aretoan ekitaldia egin zuten, larunbatean. "Gure lanaren zutabeetako bat zarete", nabarmendu zuen taldeko kide Mailu Arrutik.

Instituzioek ematen dieten laguntza ere "oso garrantzitsua" da, Arrutik esan zuenez. Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia ari dira Islada Ezkutatuak laguntzen. Jesus Zaballos alkateak adierazi zuen "oso harro" dagoela taldeak egindako lanaz: "Herritar guztiek jakin behar dute garai horietan gertatu zena". Maribel Vaquero Bizikidetzeta eta Giza

Eskubideen zuzendariak esan zuen lanean jarraitu behar dutela, elkarrekin: "Instituzioak hasi dira babesten Islada Ezkutatuak bezalako taldeek egiten duten lana; elkarrekin jarraitu behar dugu lanean, identifikatzeko zer falta zaigun egiteko".

## Lau urteko zikloa

Joxea Muguruza ere Islada Ezkutatuakeko kidea da. "Lau urteko ziklo" gisa definitu zuen taldearen jarduna: Txaldatxurren gerra material asko topatu dute, orain arte ia ikusiak izan ez zirenak estatu osoan, gudari baten gorpuzkiak aurkitu, lurretik ateratakoarekin erakusketa iraunkor bat antolatu, eskoletan hitzaldiak eman,

## ORAIN ARTE JASOTAKO TESTIGANTZEKIN ELKARRIZKETA LIBURU BAT ARGITARATUKO DUTE 2019AN

Lasarte-Orian memoriaren ibilbidea egin, eta paragrafo batean sartzen ez diren beste hainbat gauza. Urte honetan, batez ere, erregistroz erregistro ibili dira taldekideak, jakin nahian nortzuk aritu ziren Txaldatxurreko gudan. "Nafarroa erdia arakatu dugu ia".

Hainbat proiektu dauzkate esku artean uneotan. Elkarrizketa liburu bat argitaratzekotan dira orain arte bildu dituzten 80 testigantzekin. Bestalde, pare bat monografiko egin nahi dituzte: bata, estatu kolpea eman zutenen perspektibatik; bestea, errepublika defendatu zutenen ikuspuntutik.

Eskertza eta azalpen artean, Joseba Tapia musikariak girotu zuen larunbateko ekitaldia, trikitixa eskuetan. "Urtero-urtero deitzen diogu, eta behin ere ez du kale egiten; denoi gomendatzen dizuet entzuteko ikertzen ari garen garaiei buruz Josebak sortu duen musika", azpimarratu zuen Mailu Arrutik.

## LABek beste behin irabazi ditu hauteskundeak Michelinen

Asteartean egin zituzten hauteskunde sindikalak; guztira sei ordezkari izango ditu LABek; CCOOek, lau

### Txintxarri

Hirugarren aldiz irabazi ditu LABek hauteskunde sindikalak Michelinen. Batez ere tailerrean du indarra sindikatuak; langileen %39k babestu dute. Horrela, guztira sei delegatu lortu ditu sindikatu abertzaleak. Lau lortu ditu CCOOek; CSIk, hiru; ELAk, bi; eta, azkenik, UGTk beste bi. "Harro egoteko moduko emaitzak dira, langileak eskertu nahi ditugu", adierazi du LABek.



LABeko kontzentrazio bat. TXINTXARRI



TXINTXARRI

## Ezer ez zegoen soberan

Elikagaiak xahutzearen aurkako I. jardunaldia ospatu zuten Okendo plazan pasa den larunbatean: Galdakaoko boluntarioen elkarteak, Merkataritza Ganberako ikasleek eta udalak antolatu zuten. Tailerrak egin zituzten, zunba emanaldia, sukaldaritza lehiaketa eta herri bazkaria, hozkailuan erabili gabe zeuzkaten produktuekin. Hainbat herritarrek parte hartu zuten.

## Gureak eta Elkar ezarriko dira Michelingo lurretan

Ez dira Lasarte-Oriako udalerrian egongo, baina bai mugan, eta beraz, izango dute eragina herrian. Michelinek utzitako lur sailetan ezarriko dira Gureak eta Elkar enpresak, Usurbilgo lurretan.

Lasarte-Oriako EH Bilduk gune horren berrerrabilpen industriala txalotu du. Usurbilgo Udalak emandako datuen arabera, bi enpresen artean 42 milioi euroko

inbertsioa egingo dute, eta 45.562 metro koadroko eremuan 950 langile arituko dira. Ongi bidean, 2021. urte bukaeran martxan egongo da industria gune berria.

Albiste hori aprobetxatu du EH Bilduk Lasarte-Oriako Udala kritikatzeko. "Lasarte-Oriako PSOE-EAJko udalak industria gune bat sortzeari uko egin dio, merkataritza gune bat sortzeko. Euren epe motzera begirako ikuspegia eta gure herrirako proiektu eza agerian utzi dituzte modu horretan. Luzaroan sufrituko dugu ardugabekeria hori".

# Garzes eta Arroyo garaile euskarazko kategorietan

Lepo bete da kultur etxeko hitzaldi aretoa aurten ere: Literatur Lehiaketaren 32. edizioko sariak banatu dituzte. 400 lan baino gehiago aurkeztu dituzte idazleek, euskaraz eta gaztelaniaz; ikastetxeetako ikasle gazteek idatzitako ipuinak izan dira horietako asko

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Lan literarioak osatzen dituzten hitzak daramatzaten paper zatien usaina. Eta diplomena. Argazki kameraren hotsak eta flashak. Ikus-entzuleen txaloak. Literatur Lehiaketaren sari banaketa ekitaldiaren osagaietako batzuk dira. Protagonistak, dena den, idazleak izan dira. Idoia Garzesek irabazi du euskarazko mikrokontakizun saria. Lasarte-Oria saria, berriz, Lide Arroyo gazteak jaso du. Kanpoan dagoenez, amak jaso zuen diploma. Herritarrak dira biak. *Nire isla da eta Transfuga* lanak aurkeztu dituzte, hurrenez hurren. Felipe Juaristik, Karlos Linazasorok eta Rufino Iraolak osatu dute epaimahaia.

Gaztelaniako kategoriako poesia saria Aitor Kaltzakorta idazle irundarrak irabazi du aurten. *Me gustan las furgonetas azules y el magma de tu boca* (Furgoneta urdinak eta zure ahoko magma gustatzen zaizkit) lana aurkeztuta. Mikrokontakizun saria, berriz, Esther Alonso galziarrak jaso zuen, *Gene Infernum* lanarekin. Bi kategorian horietako Lasarte-Oria sariak eman gabe utzi ditu Marian Benitezek, Mertxe Tranchek eta Alberto Vazquezek osatutako epaimahaia. Sariak Jesus



Sari guztiak banatu eta gero, talde argazkia atera zuten. TXINTXARRI

Zaballos alkateak eta Maite Iglesias Kultura batzordeburuak eman zituzten. Aitor Tejedorrek irabazleen pare bat lan errezitatu ditu: euskaraz bat, eta gaztelaniaz bestea. Ivan Morenok jarri dio musika narrazioari.

## 400 lan baino gehiago

Orain arte aipatutako idazleak helduak dira. Euskaraz zein gaztelaniaz, 115 lan aurkeztu dituzte guztira. Etxeko txikienek 313 ipuin idatzi eta aurkeztu dituzte lehiaketara, guztiak euskaraz. Beraz, gaztetxoek eta

helduen obra literarioen batuketa eginda, 428 lan aurkeztu dituzte Literatur Lehiaketaren 32. edizioan.

## Gaztetxoek ere idazle

Haurren kategorian 9 eta 15 urte bitarteko neska-mutilek parte hartu dute: A multzoan 2009. urtean jaiotako lanak bildu dituzte, 67 guztira; B multzoan (2006 eta 2008 artean jaiotakoak), 198; eta C multzoan, 42. Poesia atalean, berriz, sei lanen artean deliberatu du epaimahaia.



Jalguneko kideak, astearteko agerraldian. TXINTXARRI

## Goatzeko moduko larunbata, abenduaren lehenerako

Jalguneren jaialdian parte hartuko dute Zabaleta Auzolanek, Gazteklubak eta Semblante Rocierok

## Txintxarri

Jaialdi gozagarria iragarri du Jalgune Elkarteak abendua hasteko. Hilabeteko lehen larunbatz patxadaz disfrutatuko dute emanaldira gerturatuko diren herritarrek. Abenduaren 1ean, 18:00etan zabalduko dituzte kultur etxeko ateak, eta arratsaldeaz goatzeko euren esku dagoen guztia egingo dutela ziurtatu dute. Horregatik, gonbita luzatu dute ekitaldiaz goatzera animatu daitezen herritarrak, larunbat arratsalde dibertigarria igaro dezaten guztiek batera, erlaxatuta.

*Guri... nos gustan los sábados!... Ta zuri?* lelopean ospatuko dute jaialdia. Izan ere, larunbatetan ez dute iratzargailuaren beharrik izaten, aste guztiko nekeak berreskuratzen baitituzte. Asteaz zehar baino lo apur bat gehiago eginez ekiten diote egunari, baina ez edonola. "Pozik"

esnaten direla aitortu dute elkarteko kideek. "Larunbatak dira gure asteko egunik gustukoena". Ez dute lanera joan beharrik, eta horregatik umorez ekiten diote egunari goiz-goizetik. Gosaltzeko ordua ere hamaiketakoarenarekin elkartzen zaie gehienetan, eta bazkal ostea iristeko desiratzen egoten dira. "Jalgunen elkartzen gara arratsaldetan, eta lagunartean, izugarri ondo pasatzen dugu".

Elkarteko ekintza dibertigarriez gain, Lasarte-Oriak ere hamaika ekitalditan parte hartzeko aukera eskaintzen die. Beste zenbaiten artean, Inauterietako konpartekin mozorro festaz gozaten dute urtero. Pirritx, Porrotx eta Marimototsekin ere une ederrak igaro dituzte, eta Semblante Andaluzen erromerian rocieroak bihurtzen dira Jalguneko herritarrak.

## Hitzaldia

## Kudeaketa herritarren zerbitzura

Juan Karlos Izagirre  
Nerea Zubia (Oñati)  
Xabier Arregi (Usurbil)



Azaroak 29 19:00etan, Antonio Mercero Aretoan (Okendo)

**Adrian Garcia**

Negar asko egin du, eta oraindik ere kosta egiten zaio malkoei eustea pasatako amesgaiztoa gogora ekartzean. "Negar egiteak ez du esan nahi ahula izatea". Hain justu, emakume indartsua eta ausarta da Garazi Uribe. Horiek ez dira bere benetako izen-abizenak; indarkeria matxistaren biktima da, eta ez dio lotsarik ematen aitortzeak. "Lotsa aspaldi galdu nuen. Ixilik geratu banintz ez nintzen bizirik aterako". Baina seme-alabak ditu haren kargu, eta haiek babestearren erabaki du anonimotasuna gordetzea. "Umeak dira biktima zuzenak, bizi izan duten guztiagatik, baina ez dira horrela kontutan hartzen". Hasieratik onartu du elkarrizketa ematea TXINTXARRI, bere egoera berberean dauden emakumeei lagungarria izango zaielakoan.

**Zergatik ez duzu zure izen-abizenak publiko egiterik nahi?**

Nik ez dut arazorik aurpegia emateko. Lotsa galdu dut, ez naiz berriro ezkutatu. Nire seme-alabengatik egiten dut. Nahikoa sufritu dute, ez dut nahi orain haien amari buruz hitz egitea korridoreetan.

**Biktima izateagatik lotsa izan duzu?**

Bai. Harekin [erasotzailearekin] bizi nintzanean, kalean bururik ez nuen altxatzen, inor ez agurtzeko. Bakartu egiten duzu zure burua, ez duzu nahi inork galdetzea zer moduz zauden, agian negarrez hasiko zarela. Lotsa ematen dizu onartzeak zure bizitza hutsegite handi bat izan dela. Erruduna sentitzen zara.

**Nolako pausoa izan zen zuretzat tratu txarrak salatzea?**

Kontatzen duzun unean bertan egia bihurtzen da. Indarkeriaren biktima zarela zalantzan jartzen duzu, baina publiko egitean, egia bihurtzen da. Nik ez nuen sinetsi nahi benetakoa zenik, eta bi urte egon nintzen salaketa jarri nuen arte.

**Bi urte denbora asko da.**

Bi urte infernuan bizitzen? Bai, denbora asko da.

**Zergatik horrenbeste denbora?**

Tratu txar emaillek oso txikia sentiarazten zaituzte. Horren txikia, ezen zure buruaz zalantza egiten duzun, erotu egin zarela sinetsi arte. Zurrunbilo izugarri batean sartzen zara; beldurrez akabatzen zaude.

**Zeren beldurrez?**

# "Indarkeria matxistaren biktima zuzenak dira haurrak"

**GARAZI URIBE INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA**

Seme-alabak babesten jarri ditu indar guztiak Uribe. "Ez dituzte biktimatzen hartzen". Haren arabera, sistemak huts egin du: "Astero hiltzen dituzte emakumeak"

Eta gero zer? Zer egingo dut? Askotan esaten zidan: "Banatzen bagara akabatu egingo zaitut, eta umeak nirekin eramango ditut". Bertigo handia ematen du. Batzuetan nahiago duzu denak berdin jarraitzea, horri aurre egin beharrean.

**Emakume ausarta eta segurua dirudizu. Biktima ba al dute profil jakinik?**

Ez. Edozein izan daiteke; pertsona normalak gara. Babak eltzetik atera ditut beti, ez dut nire bizitza gidatuko duen gizonik behar izan inoiz. Antza denez, ez dut biktimaren profila betetzen, jenio txarra dudalako. Nire amak eta beste emakume askok esan izan didate: "Baina ez zaitu jotzen, ezta? Zerbait egingo zenion". Baina pertsona horrek txikia sentiarazten nau. Ikusten dudak bakoitzean pixa egiten dut galtzetan.

**Zerk bultzatu zintuen bi urteren ostean salaketa jartzera?**

Haren senitateen aurrean mehatxatu ninduen, hil egingo ninduela. Bere anaiak esan zidan: "Edo nirekin batera zatoz salaketa jartzera, edo ni bakarrik joango naiz". Hernaniko polizia etxera joan nintzen.

**Nola sentitu zinen?**

Ez nekien zer egin, zer zen hoberena nire seme-alabentzat. Etxean [erasotzailea] edukitzea ona izango zela uste nuen, eta kontrakoa izan zen: neure burua zigortu dut horregatik. Zaila da

hitzak jartzea horri guztiari; nahaste handi batean sartuta nengoen. Salaketa jartzean amildegira jauzi egin banu bezala sentitu nintzen: eta orain zer?

**Zer kontatu zenien polizia?**

Hori da bestea: zer esango diet, jotzen ez banau? Bultzada bat edo kamisetatik heldu gehienez, baina nik ez nituen jipoiak jasotzen. Mehatxuak, bai: "Inork aurkituko ez zaituen toki batean lurperatuko zaitut; istripu bat izango duzu gutxien espero duzunean...". Orduan hasi nintzen benetan beldurra izaten. Niri zerbait gertatzen bazait, nork zainduko ditu nire seme-alabak?. **Beraz, erasotzailearen familia ere jakitun zen tratu txarrez.**

Bai. Hiru hilabetez eraman zuen arrebak bere etxera. Baina sekulakoak egiten zituen; gure kontutik dirua gastatzen zuen, eta egunetan ez zen etxetik pasatzen. Azkenerako, bere arrebak ere etxetik bota zuen. Eta nork jaso zuen kale gorrian ez egoteko? Nik.

**Zergatik hartu zenuen berriro etxean?**

Uste nuelako nire eginkizuna zela bera salbatzea. Pertsonalitate

**"EZ ZARA OHARTZEN ZENBATERAINO ZAUDEN PRESO, BENETAN ASKE IZAN ARTE"**

bikoitza izango balu bezala zen. Urteetan ondo ibili ginen, baina azken haurdunaldian gauzak okertzen joan ziren; droga kontsumitzen hasi zen, eta berriro mendean erori zen. Nik, azken batean, ezagutu nuen beste pertsona hura bueltatzea nahi nuen. Baina konturatu nintzen hura salbatu nahian ni ari nintzela hondoratzen.

**Zer moduz portatu dira zurekin erakundeak? Babestuta sentitu al zara?**

Hustegite asko izan dituzte nirekin. [Erasotzailea] Etxean nuela, 2.000 euroko transferentzia bat eginarazi zidan, eta oporrak hartuta hamabost egun eman zituen parrandan. Beldurrak akabatzen eman nituen egun horiek, etxera noiz eta zer egoeran etorriko zain. Udaleko Gizarte Zerbitzuetara deitu nuen, eta abuztua zenez, esan zidaten ezin nuela etxetik alde egin, etxebizitza abandonatzea litzatekeela. Alegia, nire kalterako izango zela. Irailera arte eusteko gomendatu zidaten, eta nire senarra itzuliko balitz, asko ez hitz egiteko, gehiagi ez haserrarazteko.

**"NIRE EKONOMIA AZTERTZEN DUTE; BIKTIMAREN KONTROLA ERABATEKOA DA"**

**Etxebizitza abandonatzea? Gehiagi ez haserraraztea?**

016 telefonora deitu nuen, eta esan zidaten arropa prestatu eta lehenbailehen etxetik alde egiteko. Etxebizitzaren abandonoa ez da existitzen. Bere erasotzailearen beldur den emakumeari ezin zaio esan etxean eusteko, eta are gutxiago Gizarte Zerbitzuetatik. Ez dut pentsatu nahi zer gertatu zitzaidakeen kasu egin izan banie.

**Salaketa jartzean zer gertatu zitzaien haurrei?**

Urruntze agindua jarri zioten berari, eta aste barruan bitan bisitatzeko aukera eman zioten, eta egun batez asteburuan. Baina ez zen ondo portatzen; haren lagunen etxera eramaten zituen. Ezagutzen ditut zeintzuk diren, eta ez dira konpainia onak umeekin ibiltzeko. Ezin nuen hori onartu.

**Zer egin zenuen?**

Urruntze agindua zuenez, nire gurasoekin geratzen zen haurrak hartzeko. Horietako batean, oihauek entzun nituen, eta ikusi nuen haurrak modu zakarrenean sartzen zituela autoan. Aurre egin nion, eta kolpe batez baztertu ninduen; haurrak eraman zituen ziztu bizian autoan. Ondoren atxilotu egin zuten. Bisitak galdu zituen orduan.

**Arnasa hartuko zenuen, ezta?**

Haurrak salbatzea izan da beti nire helburua. Besterik ez dut buruan. Kolpea ondo jasota egon zen, horixe lortu nuelako. Ez zituen haurrak berriro hartuko. **Azken finean, haurrek horrelako egoeratan asko sufritzen dute.**

Ez egin zalantzarik. Haurrak indarkeria matxistaren biktima zuzenak dira, baina justiziak ez ditu kontutan hartzen. Garrantzitsuena haurrak babestea da. Ama gaizki tratatzean, haurrari ematen zaizkio tratu txarrak. Infernu batean sartzen dituzu. Eta babestu ordez, bultzatzen dituzte erasotzailearekin elkartzera.

**Zer eragin izan du honek guztiak zure seme-alabengan?**

Zaharrena errudun sentitzen da. Bestea ez da gai fardelak uzteko, eta badu horretarako adina. "Aita, ama, pupa", errepikatzen zuen denbora batez. **Elkartze puntuan bisitak izan dituzte haurrek.**

Bai. Erasotzailearentzat oso erraza da hori. Ordubetez itxurak egin behar ditu gizarte hezitzaileen aurrean. Baina hori

ere gaizki egin zuen. Ez zen saioetara joaten, edo drogen eraginpean joaten zen. Garrasi egiten zien haurrei... Bisitak kendu zizkioten azkenean.

#### **Urruntze aginduak nola funtzionatzen du? Eraginkorra al da?**

Nahiz eta debekatuta izan, herrira etortzen zen, eta ni hilko ninduela esaten zion jendeari. Ertzainek esaten zioten joateko, baina ez zitzaion beste ezer gertatzen. Amesgaiztoa izan zen; ezin nuen herritik ibili, berarekin topo egiteko beldur. Sanpedroak etxean pasa genituen; pentsa zer haserrea hartu zuten haurrek. Eraginkorrak al diren? Ez al duzu ikusten hiltzen dituzten emakume mordoa?

#### **Nola lortu zenuen urruntze agindua hausten zuela frogatzea?**

Pertsona zintzo asko ere badaude, zorionez. Eta horietako batek ohartarazi zidan halako tabernan zegoela, goizean goiz, mozorrotuta. Ertzaintzari deitu nion, eta preso eraman zuten. Laugarren aldiz harrapatu zuten urruntze agindua hausten.

#### **Nola aldatu da zure bizitza erasotzailea kartzelan sartzean?**

Orduan hasi nintzen bizitzen. Sekulako uda pasa genuen. Nahi nuen tokira joan nintekeen, askatasunez. Plazan egon nintekeen, lasai. Haurra urrundu zitekeen hoge metro lagunekin jolastera, ni kezkatu gabe.

#### **Alegia, pertsona arruntek egiten dutena egin zenezakeen azkenean.**

Ez zara benetan ohartzen zenbateraino zauden preso, benetan aske izan arte.

#### **Kartzelan posible al du haurrak ikustea?**

Elkartze puntura bueltatzeko epaileak desintoxikatzea behartu zuen. Nik ez nuen nahi elkartze puntura itzul zitezen, haurrak babestearren. Baina ez dira biktimatza hartzen, eta, beraz, ez diete haurrei galdetzen. Ez dituzte haien beharrak kontutan hartzen, aitaren edo amaren txostenetan oinarritzen dira baimenak emateko.

#### **Eta haurren txosten psikologikoak zer zioen elkartze puntura joateari buruz?**

Haurrek ez zekiten kartzelan zegoela. Zentro batean sendatzen zegoela esaten nien. Psikologoak txosten bat egin zuen, baina Gizarte Zerbitzuetan faltsutu egin zuten; nire aurkako gauzak jarri zituzten, eta ez zuten haurren egoeraren berri eman. Psikologoarekin hitz egin nuen



TXINTXARRI

gero, haserre. Baina konturatu ginen bi txosten desberdin zeudela. Bere txostena moldatu zuten, eta bere sinadurarekin bidali zuten.

#### **Legez kanpoko da hori.**

Irregularitasun handiak egon dira. Bai, delitua da. Gizarte Zerbitzuetan esan zuten "laburpen bat" egin zutela. Kontua da txosten

**"EMAKUMEA  
ZAI NTZEA AL DA  
KONPONBIDEA?  
SISTEMAK EZ DU  
FUNTZIONATZEN"**

hori gaizki zegoela, eta epaileak beste bat eskatu zuen. Baina beste horretan ere, ez zituzten kontutan hartu umeak, eta elkartze puntura bidali zituzten. Horretan gaude orain.

#### **Hutsegite asko izan dituzte Gizarte Zerbitzuetan.**

Eta gehiago egon dira ere. Nire gizarte langileak ez dit sekula

**"BERAK UTZITAKO  
ZORRAK ORDAINDU  
BEHAR DITUT.  
AMESGAIZTOA EZ DA  
SEKULA BUKATZEN"**

ezertan lagundu, ez dit inoiz ezertarako deitu.

#### **Diru laguntzen berri ez dizute eman?**

Erasotzaileak miseria betean utzi gintuen. Ez hipoteka ordaintzen, ez beste ezertan ez digu lagundu. Diru laguntza baten berri eman zidaten, eta nire gizarte langileari galdetu nion; niri ez zegokidala esan zidan. Gasteizera deitu nuen, eta argi esan zidaten: indarkeria matxistaren biktima guztientzako da.

#### **Berriro joan zinen Gizarte Zerbitzuetara?**

Bai, eta esan nion bazegokidala. Hark berriro ezetz, eta Gasteizera

deitu zuen, bozgorailua jarrita. Nire aurrean erantzun zioten eskubidea nuela diru laguntza horretarako. Gizarte langileak bazekien dirurik ez nuela; seme-alabei jaten emateko ere ez nuen. Laguntzari esker, 7.000 euro eman zizkidaten segituan.

#### **Nola da posible? Horren kontra zerbait egitea pentsatu duzu?**

Ez dut ezer egiterik. Arkakuso bat naiz erakunde erraldoi baten aurka. Gizarte Zerbitzuek ez didate ezertan lagundu; dena nik bakarrik lortu dut. Nire bizitza ekonomiko guztia zaindu besterik ez dute egiten; laguntzak zertan gastatu ditudan kontrolatzen dute uneoro. Faktura guztiak erakutsi behar ditut. Emakume biktimaren kontrola izugarria da; bakarrik nago, nire seme-alabak aurrera atera nahian, mehatxatuta naukan mamu bat atzean dudala.

#### **Erakunde publikoek bakarrik utzi zaituzte?**

Hala sentitzen naiz. Ez didate inoiz deitu ezer eskaintzeko. Sekulako aktorea bihurtu naiz. Lur jota egon naiteke, baina gai naiz umeen aurrean itxurak egiteko eta haiekin jolasteko.

#### **Bi urte pasa dira salaketa jarri zenuenetik. Zer moduz zaude?**

Errusiar mendi emozional batean bizi naiz. Ondo nago, haren [erasotzailearen] berri izaten dudana arte, eta orduan itzultzen zaizkit mamu guztiak. Medikazioa hartu beharra dut. Lehen ohetik ateratzeko ere gogorik ez nuen izaten askotan. Lo egiteko ere hartzen dut zerbait. Halere, amesgaiztoak izaten ditut.

#### **Eta zer moduz daude haurrak?**

Bi urte hauetan ez diet haurrei esan haien aitak egin duena. Kokatu beharra dute aita, eta nik esan diet sendatzen dagoela zentro batean, nahiz eta kartzelan egon. Txikiena ez da gogoratzen elkartze puntuan izan zituen istiluez, eta arazoak ditu eskolan, beste umeek esaten diotelako aitarik ez duela.

#### **Elkartze puntura itzuli dira haurrak?**

Bai. Donostiako elkartze puntua, Prim kalekoa, zabor hutsa da. Ez dago haurrentzat pentsatuta. Oso leku ilun eta itsusia da; soto zahar bat. Sartzen garenean, gainera, nire erasotzailea entzuten eta ikusten dut. Ez dago lekurik, eta ordu txarrak ematen dituzte. Prozesu honetan guztian ez dira kontutan hartzen haurren beharrak. Tamalgarria da.

**Zer moduz doakie haurrei?**

Nire seme-alabak ez daude ondo, baina bisitak haien aitarekin ez doaz gaizki. Ongi ikusi dute. Baldintza asko jarri dizkiote: gizarte hezitzaile baten presentzia eduki behar dute, eta hainbat gairi buruz ezin dute hitz egin, niri buruz, adibidez.

**Nahitaezkoa al da umeak elkartzeko puntura joatea?**

Bai. Zaharrenari zorabio bat eman zion sartu aurretik, eta esan zidaten salbuespen bat egin zezakeela, ez sartzeko. Baina arrastaka bada ere, sartu egin behar dituzu.

**Txikienak hobeto eraman zuen?**

Ez zuen aita ezagutzen, eta berarekin ongi egon zen, jolasten. Egia da txikienak kalean aurkitzen duen edozeinekin jolastu dezakeela.

**Nola eragin die haurrei aita berriro ikusteak?**

Zaharrenak gaizki pasa izan du elkartzeko puntuan, iraindu eta garrasi egin izan baitio aitak. Orain ondo dagoenez, nire aurka egiten du. Egunero hitz egiten dut haiekin; zaharrenak esaten dit ez zaiola ezer gertatzen, baina badakit eragina izan duela aita ikusteak.

**Psikologoak laguntzen al du horretan?**

Hori da gertatu zaigun beste gauza bat: azken boladan gurekin egon den psikologoa kasutik baztertu dute. Gizarte Zerbitzuetan dago, baina ez digute guri egokitu. Elkartzeko puntua hasi aurretik deitu eta deitu egin behar izan nuen psikologoarekin hitzordua hartzeko.

**Nola hartu duzu psikologo aldaketa?**

Lotsagarria da. Nire seme-alabak ez dira espediente zenbaki soil bat. Psikologo horri ireki zitzaion nire seme-alaba zaharrena, eta harekin hasi zen hitz egiten. Berriarekin ez du hitzik egiten. Baztertu ziguten psikologoa, baina erregutu nien sikiera saio bakar bat edukitzeko, agur moduan. Denari esan didate ezeztz. Patetikoa da.

**Nabaritu duzue aldaketa?**

Berriro fardela erabiltzen hasi da txikiena. Eta saioetan oraindik ez dute hitz egin horri buruz. Izua dio komunera joateari. Gizarte Zerbitzuek zigortu egin naute. Ni ez, nire seme-alabak.

**Zenbat denbora geratzen zaio kartzelan erasotzaileari?**

Hirugarren graduan sartu da orain. Gero zaintzapeko askatasuna izango du.

**Nola daramazu hori?**

Gaizki. Beldurra sentitzen hasi naiz berriro. Ertzaintzak zaintzen ditu berriro ere ni ibiltzen naizen inguruak.

**Bizkarzainak jarri dizkizute?**

Nire ordutegiak eta errutinak galdetzen dizkirate, haurrak ikastolatik jasotzen ditudan orduak, eskolaz kanpoko jarduerak... Baina niri ezin didate eman informaziorik nire erasotzailearen inguruan, nondik ibiltzen den jakiteko; hara ez joateko behintzat. Hori al da konponbidea? Emakumea zaintzea? Sistema ez dabil ondo. Astean zenbat emakume akabatzen dituzten besterik ez da ikusi behar.

**Beldurra ematen jarraitzen dizu?**

Marra bat sartzen duen unean, eta jakiten duenean bikotekidea dudala, nire bila etorriko da. Erotu egingo da. Haren abokatuaren bidez jakin izan dut familia berreskuratzeko asmoa duela. Pasatakoa eta gero... Harrikada ederra du.

**Nolakoa izan da zure gertuko erantzuna jakitean biktima zarela?****Biktimak ahalduntzeko espazioa**

Sorburu Kooperatiba Feministak emakumeak ahalduntzeko espazioa jarri du martxan Zentro Zibikoan. Garazi Uribek (ez da bere benetako izena) parte hartu du saio batean, eta "benetan aberasgarria" iruditu zaio. "Dinamizatzailea sekulako emakumea da, indarkeria matxistaren biktimak laguntzen dituen borrokalari nekazina". Saio horietan, bakoitzak bere kasuari buruz hitz egin dezake, edo, besterik gabe, entzun. "Bakoitzak konpartitzeko gure modua dugu. Helburua da lotsak, beldurrak eta erruak alde batera uztea", azaldu du Uribek. Anonimotasuna gordetzen dute taldean. "Entzutea eta elkar ulertzea da taldearen funtsa".

Asteartean 17:00etatik 19:00etara joan daiteke hara, aldeztu aurretik hitzordua hartu gabe. Haurrak zaintzeko zerbitzua ere badute. "Indarkeria sufritu duten emakume guztiak hara joatera animatzen ditut".

Denetatik. Batzuk uko egin diote epaiketan deklaratzeari, nahiz eta mehatxuen lekuko izan. "Ni ez naiz bikoteen kontuetan sartzen", esan izan didate. Bikotea? Urruntze agindua du eta. Baina, oro har, jendea oso ondo portatu da. Erakundeak ez, baina bai jendea. Askok lagundu didate. Badakite diruz justu nabilela, eta haurrentzako arropa eskaintzen didate. Irakasleak, hezitzaileak,

jangelakoak, herritarrak... izugarri ondo portatu dira denak gurekin.

**Urruntzeko agindua izango al du kartzelatik ateratzean?**

Bai. Bost urtez ezin du Lasarten sartu. Baina hor ez da bukatzen. Etxea enbargatu nahi izan didate, hark utzitako zorrak ordaindu behar ditut-eta oraindik. Amesgaiztoa ez da sekula bukatuko, ez behintzat bera bizirik dagoen arte.

**"ATERPEA" Lasarte-Oria 2018****VI PINTXO BIDEA****Azaroak 30, Abenduak 1 eta 2****Ostirala**  
19:00-21:00**Larunbata**  
Eguerdia eta  
19:00-21:00**Igandea**  
Eguerdia

**ARAETA Sagardotegia**  
Olagarro azpizuna patata gofreen gainean, baratxuri samur aliolaz jantzita



**ARKUPE taberna**  
Kaneloi lepapea patata krema eta haragi erreduziarekin



**LASARTE Taberna**  
Tromso. Bakailao-brandada txipiroi-ogi gainean.



**BUENETXE Taberna**  
Zapore ugariko ehiza, brie gazta gainean eta gerezit beltzekin



**EGUZKI Taberna**  
Arkume-esku piper-beteak ondo saltsarekin



**TXARTEL Kafetegia**  
Hamburgesa pintxo. Hamburgesa bikia ogi kurruskari gainean pantumaka, alioli eta bacon errulo eta perrebixkoekin



**LAVIE Gastrotaberna**  
Lavie Corneto. Pisto mina, bakailao-brandada, oliba beltza eta bakailao kurruskari-emultsioa



**VIÑA DEL MAR kafetegia**  
Itsas asuntxoak espagietekin

**PINTXO "ATERPEA" 2€****200€ lor ditzakezu erosketa-bonoetan!***Lasarte-Oria, herri gastronomikoa*





Udal ordezkariak aurkeztu dituzte aste honetako Azaroaren 25eko egitarauaren barruan antolatutako ekintzak. TXINTXARRI



Eskubideen motxila aurkeztu dute kultur etxeko liburutegian. TXINTXARRI

# Indarkeria matxista gainditzeko ahaleginak

Hausnarketarako motxilak, seinaleak, Beldur Barik lehiaketako sari banaketa eta beste hamaika egitasmok osatu dute aurtengo indarkeria matxistaren aurkako asteko egitaraua. Igande eguerdian egingo dute elkarretaratzea, Okendo plazan

## Txintxarri

Indarkeria matxistaren aurkako ekintza nagusiak igandean egingo badira ere, aste osoan egin dituzte jarduera bat baino gehiago. Astearte goizean kultur etxeko liburutegian ekin zioten aurtengo egitarauari. Haurren Nazioarteko Eguna baliatuz, *Eskubideen motxilak* aurkeztu dizkiete herritarrei. Kultura gizartean eragiteko ezinbesteko tresna izanik, horixe bera lortu nahi dute egitasmokarekin.

Feminismoa, ahalduntzea eta berdintasuna gaiak ardatz hartuta, lasarteoriatarrek kontzientzia hartzeko eta hausnartzeko liburuekin eta ikus-entzunezkoekin bete dituzte bizkar-zorroak. Interesa dutenek 21 egunez maileguan hartu ahal izango dituzte etxera eramateko. Liburutegian, Zentro Zibikoan eta Gaztelekuan jaso ahalko dira.

Adin askotariko herritarrei zuzendutako motxilak koloretako

txarteltxo bidez bereizi ahalko dituzte. Txartelak motxiletatik zintzilik egongo dira, eta bertan agertuko dira adin tartearak. Bost adin tartetan banatu dituzte edukiak. 0 eta 5 urte artekoentzat; 6 eta 8 urtekoentzat; 9 eta 11 urtekoentzat; 12 urtez gorakoentzat; eta adin nagusikoentzat. Gogoetak eta idatziak egiteko aukera ere izango dute bizkar-zorroen erabiltzaileek.

Egun berean, asteartean, *Ekintza komunitarioak*:

*emakumeak indarkeria matxistarik gabeko bizitza baten alde eztabaida egin zuten Emakumeen Zentro Zibikoan. Sorburu Kooperatiba Feminista eta Emagin Elkarteak izan dira dinamizatzaileak.*

Asteazkenetik aurrera, bide-seinale berriak ikusi daitezke herriko zazpi sarreratan, Lasarte-Oria indarkeria matxistarik onartzen ez duen herria dela iragartzeko. *Indarkeria matxistarik ez! Lasarte-Oriak errespetua bultzatuz* leloa irakurri ahal izango da horietan.

## Beldur Barik lehiaketa

Ostegunean ere ekintza bat baino gehiago izan ziren, Azaroaren 25eko egitarauaren barruan. Helduentzako liburu eta DVD ez sexisten gida aurkeztu zuten, eta horren ostean, Beldur Barik lehiaketako sariak banatu zituzten. 12 eta 17 urte bitarteko kategorian lau lan aurkeztu dituzte.

Horietatik bi aukeratu ditu epaimahaiak. *Umeen kontuak* lana izan da lehen postua lortu duena, eta 200 euro jaso dituzte sari gisa. Bigarren postua, berriz, *Kuadrillategiko gazteek* eskuratu dute. *Jendeari galdezka, gure zalantzak argituz* lana egin dute, eta 100 euroko ordainsaria jaso dute.

## Datozen egunetako ekintzak

Gaur *La primavera de Antonia* helduentzako antzerkia eskainiko du Makelur taldeak kultur etxean. Hiru euroko sarrera erostea ezinbestekoa izango da.

Igandean elkarretaratzea egingo dute eguerdian, Okendo plazan. Horren ostean, 19:00etan film emanaldia izango da. *Viaje al cuarto de una madre* ikusentzunezkoa ikusteko aukera izango dute lasarteoriatarrek 5,50 euroren truke. Amaitzeko, azaroaren 28an Bea Egizabalek ipuin kontalari saioa eskainiko du.

txintxarri aldizkariak

banatzaileak behar ditu

ostiraletan herrian aldizkaria banatzeko.

Kotxea edukitzea eta lasarteoriatarra izatea lehenetsiko da.

Deitu 943371448 telefonora edo bidali zure kurrikuluma: txintxarri@txintxarri.eus

Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria



# Aldarria harri, ametsa errealitate

Urteetako aldarria harri bilakatu da. Pilotaleku estalia dauka Zabaletak. Hamaika ekintza eginez inauguratu dute, asteburuan; Iraia Iparragirre auzotarrak eta Realeko futbolariak egin du ohorezko satea. Herri bazkaria egin dute, eta iluntzera arte luzatu da erromeria

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Zabaletako auzotarrek ametsetan behin baino gehiagotan entzun dituzten pilota hotsak egiazko bilakatu ziren pasa den igandean. Gogotik ospatu zuten, hamaika ekintza antolatuta. Egun osoko festa izan zen. Mende laurdeneko partida jokatu dute aldarria harri bihurtzeko, eta irabazi egin dute: frontoi estalia dauka, behingoz, auzoak. 2017 amaieran hasi zituen lanak udalak. 775.000 euroko kostua izan dute obrek.

Ezin zuten bestela izan: pilota partidak izan ziren egitarauko protagonistak. Gazteak aritu ziren aurrea; gorriek irabazi zuten, 18-17. Ondoren, emakumeen txanda. Ane Arteaga herritarrak eta Miren Arrillaga zubietarrak 22-20 irabazi zioten Azpeitiatik etorritako bikoteari. Azkenik, Jon Pello Artetxe eta Mikel Elolak osatutako bikoteak ederki estreinatu zuten frontoi berria, Julen Alberdi eta Iñigo Bikuñari 18-22 irabazita.

Zabaletara goizeko hamarrak aldera igoz gero, zirudien XX. mende hasiera zela: *Belle époque* garaian girotutako jantziak soinean, auzotar ugari animatu

ziren desfilean parte hartzeraz. Baserritarrez jantzi ziren beste asko. Auzoan barrena ibili, eta pilotaleku berrira joan ziren gero: txalapartarekin zain zituzten Juan Luis Ieregi eta Pontxo Morales. Talde argazki erraldoia atera, eta parodiatxo eskaini zuten. Gazteek jokatu eta gero, Iraia Iparragirre futbolariak egin zuen ohorezko satea. Neurketak bukatzean, babarrun jana egin zuten. Arratsaldean, digestioa behar bezala egiteko, dantzan aritu ziren, erromeria alaian.

## Aldarrikapen historikoa

1986. urtean sortu zen Lasarte-Oriako udalerrria. Auzotarrek garai horretan aipatu zuten aurreneko erabilera anitzeko instalazio estali baten beharra. Orduan hasi zuten bidea. Orduan egin zuten nahi baino urte gehiago iraun dituen partidaren satea. Tanto luzea jokatu dute.

Pilotalekua egiteko beharra aipatu eta ondorengo urteak gorabeheratsuak izan ziren. Auzotarrek bere egin zuten aldarrikapena, eta gero eta ozenago entzuten zen: 500 sinadura bildu

zituzten 1990eko hamarkada erdialdean; parodia eginez eskatu frontoia inauterietan; *Zabaletan pilotariak BAI, baina frontoirik EZ* afixa erakutsi 2002ko herriarteko txapelketako finalean... Bien bitartean, udalak ezetz erantzun zien 2000. urteko aurrekontuetan pilotalekuaren proiektua sartzeari. Auzotarrek ez zuten etsi.

Igandean inauguratu zuten frontoiaren proiektua 2007an egin zuten. Udalak esan zuen hurrengo urtean hasiko zirela lanak, baina krisi ekonomikoak gelditu zituen pilotalekua eta auzoa urbanizatzeko plana, 2016. urte hasierara arte. Higiezin sektorea suspertzen hasi zen, eta ilusionatu egin ziren auzotarrak berriro. Azkenean, 2017. urte amaieran jarri ziren martxan makinak, auzotarrek nahi baino beranduago ziur asko, baina ez beranduegi. Pilotan jokatu daiteke behingoz Zabaletan.

Helburu historiko bat bete dute auzotarrek, eta hurrengoaren bila doaz: bilerak egiteko "behar bezalako" gune bat nahi eta behar dute. Kemena eta ilusioa behintzat ez zaizkie falta. Ametsak egia bihurtzen jarraitu nahi dute.



Auto ikusgarria ekarri zuen Joxe Mari San Josek. TXINTXARRI



Belle époque garaiko biztanleek eta baserritarrez jantzi ziren zabaletarrak. TXINTXARRI



Pilotalekurantz joan ziren desfilean herritarrak. TXINTXARRI



Auzoan barrena desfilean hasi aurretik, talde argazki erraldoia atera zuten auzotarrek. Ez zen azkena izan. TXINTXARRI



Talde argazki ugari atera zituzten. TXINTXARRI



Igandean entzun ziren pilota hotsak benetakoak izan ziren; ametsa errealitate bihurtu zen. TXINTXARRI



Harmailak jendez lepo egon ziren igande goizean. Hiru pilota partida ikusi zituzten. TXINTXARRI



Iraia Iparragirre futbolariak egin zuen ohorezko sakea, emakumeen pilota partida baino lehen. T. VALLES



Jon Pello Artetxe, pilota eramatera iristeko ahalegin betean. 18-22 irabazi zuten Elolak eta berak. TXINTXARRI



Bapo bazkaldu eta gero, dantzan aritu ziren zabaletarrak, pilotalekuan bertan. TXINTXARRI



Erromeriak girotu zuen igande arratsaldea. TXINTXARRI



TXINTXARRI

## Ezin etxean punturik atera

Irabazi dituen zazpi puntuak Michelingo zelaitik kanpo poltsikoratu ditu Ostadar SKTk. Etxean estreinatzeke aukera ona zuten larunbatean, baina ezin izan zuten aprobetxatu: 1-3 galdu zuten Leintz Arizmendiren aurka. Partida azkarregi jarri zen maldan gora

urdin-beltzentzat: hamabosgarren minuturako 0-2 galtzen zihoazen. 1-2koa sartu arren, partida erabakita utzi zuten kanpotarrek hirugarren golarekin. Bederatzigarren postuan dira seniorrak sailkapenean, zazpi punturekin.

## Errugbiko gazteen taldeek bide onetik jarraitzen dute

Paola Vegak Udalbiltzako II. Torneoan irabazi du Gipuzkoako selekzioarekin. Seniorrek asteburuan dute hitzordua

### Txintxarri

Emaitza onak lortu dituzte Lasarte-Oriako errugbilari gazteek asteburuan. Batetik, 16 eta 18 urtez azpiko Beltzak taldeek euren partidak irabazi zituzten. Zaharrenek 31-48, partida zail baten ondoren, Gernikan. Gazteenek areriorik ez zuten izan (0-127), Gernikan jokaturako beste partidaren.

Bestalde, Paola Vega lasarteoriatarrek Gipuzkoako selekzioarekin jokatu eta irabazi du II. Udalbiltza Torneoan, Baionan. Euskal Herriko beste selekzioen aurka jokatu du



Paola Vega, trofeoarekin. BELTZAK

partida, Errugbi Seven modalitatean. Senior B taldeak igandean jolatu du, Michelinen.

**1.000€ko  
ZOZKETA**  
eta gastatu 3 ordutan

**Lasarte-Oriako dendetan erosi baduzu  
eta zozketarako bonoak badituzu,  
zatoz!**

**Zuzeneko zozketa**

**GAUR**

**azaroaren 23an 20:30ean,  
Jaizkibel plazan**



**LASARTE-ORIAN BIZI, LASARTE-ORIAN EROSI**



BURUNTZALDEA IKT

## Lehen txapelketa eguna

Buruntzaldea IKTKo aurre-benjamimek eta benjaminek Test/KZL ligako lehen jardunaldia jokatu zuten joan den asteburuan Tolosan. Batez ere berezia izan zen 2010ean jaiotakoentzat: lehen txapelketa eguna izan zuten. Denera, 37 gaztexo aritu ziren Usabal kiroldegiko igerilekuan. Bestalde, Nerea Irazuk Gipuzkoako selekzioarekin entrenatuko du larunbatean.


## Mendi taldea sortu dute, eta lehen irteera antolatu Buruntzara

Belarmeta mendi taldea sortu dute Sorgin Jaiek. Lehen irteera ere prest dute: Buruntza mendira egingo dute mendi buelta, larunbatean bertan. 09:30ean geratu dira, Okendo plazan. Gazteen artean "harreman berriak" sortu nahi dituzte, eta, kirol pixka bat eginez, naturaz gozatu. Ondoren, Xirimirin hartuko dituzte indarrak.



Buruntza mendia. TXINTXARRI

## KOMIKIA



## ZORION AGURRAK



**Gonzalo**  
Gonzalo, pottokito! Zorionak zure 6. urtebetetzean! Ondo ondo ospatu. Askok maite zaitugu. Lasarteko familia guztiaren partez.



**Javier**  
Zorionak xalxerito! Ondo ospatu zure eguna eta jarri freskatzen ardoa biharko! Muxu asko familia guztiaren partez.

## JAIOTAKOAK

**Pablo Sanchez Recio.** Azaroaren 18an.  
**Alma Ruano Mazo.** Azaroaren 15an.  
**Omar Grijalba Kadouri.** Azaroaren 13an.

## HILDAKOAK

**Modesto Erauskin Gurrutxaga.** Azaroaren 19an.

## TELEFONOAK

**UDALAREN TELEFONOAK:**  
ERREGISTROA: 943 371 629  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184  
KIROLDEGIA: 943 376 182  
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179  
KIUB: 943 361 605  
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621  
MUNTTERI AEK: 943 372 863

**LARRIALDIKO TELEFONOAK:**  
OSASUN ZENTROA: 943 007 960  
DYA: 943 464 622  
GURUTZE GORRIA: 943 363 953  
UDALTZAINAK: 943 362 442  
ERTZAINAZA: 943 538 840  
SOS DEIAK: 112

## GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 24 GANDARIAS-URIBE  
Larunbata, 25 DE MIGUEL  
Igandea, 26 DE MIGUEL  
Astelehena, 27 ORUE  
Asteartea, 28 DE MIGUEL  
Asteazkena, 29 LASA  
Osteguna, 30 GIL


**EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00**  
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00**  
Castilla-Larburu: Urbietea kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41


**Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.** Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

## EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 23



Larunbata, 24




Igandea, 25




Astelehena, 26



Asteartea, 27



Asteazkena, 28



## SUDOKUA

4		7	1	5		2	3	8
			7		2	9	5	
2			8	3				6
1	3		2		7			
		6		1	3	5		
		9				3	1	
9	8		3	2		7		
	7	3			8		2	
5			6	7		8		3

## OHARRAK

### Odol ateratzea

Hilabetekoazken astelehenean, azaroaren 26an, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, 17:30etik 20:30era. Anima zaitetze, odola ordezkaz ezina da eta odol falta dago!

### Biyak Bat elkarteko loteria

Biyak Bat elkarteak zenbait ohar jakinarazi nahi ditu. Batetik, bazkideek Gabonetako loteria erosteko aukera izango dute azaroaren 5etik aurrera. Horretarako bazkide txartela erakustea ezinbestekoa izango da.

ESKELAK

**OROIGARRIA**



**Modesto Erasquin Gurrutxaga**  
Goian bego

2018ko azaroaren 19ean hil zen, 95 urte zituela.



---

Besarkada handi bat familiarri,  
Ttakun Kultur Elkartearen partetik.

---

Ttakun Kultur Elkarte.

**ESKELAK JARTZEKO:  
943 37 14 48  
edo TXINTXARRI  
erredakzioa**

▶ Eskela Txintxarri paperean +  
Txintxarri.eus-en: 90€  
▶ Eskela Txintxarri paperean: 80€



AZOKA TXIKIA

**ETXEBIZITZA**  
**ALOKAIRUAN EMAN**  
Loidibarren parkinean, BMn, 17 metro karratuko garajea alokatzen dut. Telefonoa: 648 200 811.

**LANA**  
**ESKAITZA**  
Lasarte-Oriako taberna batean astebururako zerbitzaria behar da. Interesa duten pertsonak 666 461 595 zenbakira deitu.

**ESKARIA**  
Prest nago edozein gauzatan lan egiteko, hala nola, adineko pertsonak zaintzeko, edo baserriko lanak egiteko. Telefonoa: 643 23 75 10.

Pertsona eskaintzen da etxean edo ospitalean pertsona adinduen zaintza egiteko, baita gauetan ere.

Etxeko lanak ere egingo lituzke. 632 198 705.

Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Orduka, asteburuetan eta jaiegunetan zein ospitalean gaueko zaintzak egiteko prest. 606661048/943-404015

**SALEROSKETA**  
**SALDU**  
Kotxe berria saltzen da, Mikrokrar marka, karnetik gabea. Prezio interesgarria. 608 417 794 edo 670 236 356 telefonoetara deitu.

**HEZKUNTZA**  
DBH 1.go mailako ikasle bati klase partikularrak emateko irakasle baten bila nabil. Telefonoa: 605 770 436

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira


**TAMAINA BERRIA**

Modulo txikia.  
12 € + BEZ  
publizitatea@ttakun.eus  
646.824466

**TAMAINA BERRIA**

Modulo handia. 20 € + BEZ  
publizitatea@ttakun.eus  
646.824466

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

**txintxarri**

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

**Argitaratzailea**  
Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 LASARTE-ORIA  
G-20407557

**Administraria**  
Nerea Garziarena.

**Erredakzioa**  
Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,  
Maddi Noriega eta Adrian Garcia.

**Publizitatea**  
Iratzi Zatarain.

**Laguntzaileak**  
Unai Muñoa, Gorka Lasa,  
Mailu Arruti, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Maider Galardi, Mikel Yarza,  
Nerea Segura eta Aizpea Amas.

**Banatzaleak**  
Ioar Gainza, Egoitz Epelde,  
Iñigo Ibarburu, Mikel Valdes,  
Naiara Goikoetxea.

**Informatikoa**  
Beñat Gonzalez

**PUBLIZITATEA**  
Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
publizitatea@ttakun.eus

**EGOITZA NAGUSIA**  
Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
txintxarri@txintxarri.eus

**Inprimategia**  
Zeroa Multimedia, S.A.

**Lege Gordailua:** SS-513/94  
**ISSN:** 1134-0053  
**Tirada:** 8.000 ale

BABESLEA



**LASARTE-ORIA**  
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLITICA LINGÜISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



**LASARTE-ORIA 'Ulisesen bidaia' haur antzerkia.** Gorakada Teatroak Ulisesen bidaia haurrentzako antzerkia eskainiko du. Greziako Jainkoek gizakien bizitzak gobematzen zituzten, Olinpo mendiaren gailurretik. Haiiek erabakitzen zuten gizakiak babestu edo baztertu. Batzuk, Jainkoen apetei aurre egitera ausartu ziren, eta haien haserrearen biktima bihurtu ziren. Halaxe gertatu zizaion Ulisesi. 7 urtetik gorako haurrek antzerkiak gozatu ahalko dute. Manuel Lekuona kultur etxean, igandea, 17:00etan.

## OSTIRALA 23

### LASARTE-ORIA Euskaraldia

Euskaraldiaren hasiera ekitaldian musika eta umore ona izango dira nagusi. Okendo plaza, 16:00etatik 21:00etara.

### LASARTE-ORIA Victor Vega Jazz trio

Jazzeko standar herrikoien moldeketa originalak eskainiko ditu Victor Vega Jazz hirukoak. Leku guztietan kultura ekimenaren ekintza. Jaizkibel plaza, 19:00etan.

### LASARTE-ORIA Musika Topaketa

Ars Combinatoria bikoteak emanaldia

eskainiko du, Danok Kideren XIV. Musika Topaketen barruan. Elsa Ferrer biolin-jotzaileak eta Canco Lopez klabezin-jotzaileak Corelli eta Haendelek biolinarentzat idatzitako Sonata eskainiko dituzte. Ama Brigitarren komentua, 19:30ean.

### LASARTE-ORIA Antzerkia

Genero indarkeriaren aurkako eguna dela eta, Emakumeen Zentroko Makelur antzerki taldeak La primavera de Antonia lana eskainiko du. Sarrera: 3 euro. Genero indarkeriaren aurkako egitarauko ekintza. Manuel Lekuona, 19:30ean.

## LARUNBATA 24

### LASARTE-ORIA Euskaraldia

Euskaraldiko festa giroari jarraipena emango zaio. Okendo plaza, 11:00etatik 14:00etara.

### LASARTE-ORIA Haur antzerkia

Homeroren Ulisesen bidaia liburuaren moldaketa. Sarrera: 3,80 euro. Manuel Lekuona, 17:00etan.

## IGANDEA 25

### LASARTE-ORIA Kontzertua

Zero Sette Akordeoi orkestrak kontzertu

klasikoa eskainiko du. Usandizaga, Boieldieu, Deneville, Mohr eta Rixnerren doinuak eskainiko dituzte. Ama Brigitarren komentua, 12:00etan.

### LASARTE-ORIA Santa Zezilia

Santa Zezilia musikariaren zaindariaren eguna dela eta, Alboka Abesbatzeko kideek meza girotuko dute haien ahotsekin. Arantzazuko Ama Birjinaren eliza, 12:00etan.

## ASTEARTEA 27

### LASARTE-ORIA Literatura txokoa

Lasarte-Oriako literatura txokoko

## ZINEMA

### LASARTE-ORIA

#### MANUEL LEKUONA

**Itsasontziak erreskatean**  
Igandea: 17:00.

**Viaje al cuarto de una madre**  
Igandea: 19:30.

#### URBIL

#### Superlópez

Ostirala: 16:00, 16:45, 17:45, 18:30, 19:15, 20:15, 21:00, 22:00, 22:45, 23:30, 00:30.  
Larunbata: 16:00, 16:45, 17:45, 18:30, 19:15, 20:15, 21:00, 22:00, 22:45, 23:30, 00:30.

Igandea: 16:00, 16:45, 17:45, 18:30, 19:15, 20:15, 21:00, 22:00, 22:45.

**Animales fantásticos: Los Crímenes de Grindelwald**

Ostirala: 16:00, 18:10, 19:00, 20:00, 21:00, 21:45, 23:00.  
Larunbata: 16:00, 18:10, 19:00, 20:00, 21:00, 21:45, 23:00.  
Igandea: 16:00, 18:10, 19:00, 20:00, 21:00, 21:45, 23:00.  
**Bohemian Rhapsody**  
Ostirala: 16:20,

19:10, 20:35, 22:00, 23:20.  
Larunbata: 16:20, 19:10, 20:35, 22:00, 23:20.

**El Cascanueces y los Cuatro Reinos**

Ostirala: 16:15, 18:25.  
Larunbata: 16:15, 18:25.  
Igandea: 16:15, 18:25.  
**Malos tiempos en El Royale**  
Ostirala: 17:00, 00:30.  
Larunbata: 17:00, 00:30.

Igandea: 17:00.  
**Millennium: Lo que no te mata te hace más fuerte**  
Ostirala: 00:45.  
Larunbata: 00:45.  
**Overlord**  
Ostirala: 00:50.  
Larunbata: 00:50.  
**Pesadillas 2: Noche de Halloween**  
Ostirala: 15:45.  
Larunbata: 15:45.  
Igandea: 15:45.  
**Smallfoot**  
Ostirala: 16:05.  
Larunbata: 16:05.  
Igandea: 16:05.

## ASTEBURUKO KIROL HITZORDUAK

### FUTBOLA

**ERREGIONAL OHOREZKO MAILA**  
**Touring KE - Ostadar SKT**  
Larunbata. 17:30. Fanderia, Erreterian.  
**ERREGIONALEN GORENGOA**  
**Orioko FT - Ostadar SKT**  
Larunbata. 17:30. Mendibeltz, Orion.  
**ERREGIONALEN 1. MAILA**  
**Ostadar SKT - Usurbil FT**  
Larunbata. 15:45. Michelinen.  
**JUBENILEN OHOREZKO MAILA**  
**Ostadar SKT - Zumaiako FT**  
Larunbata. 17:30. Michelinen.  
**JUBENILEN 1. MAILA**  
**Ostadar SKT - Astigarragako Mundarro FKE**  
Larunbata. 12:30 Michelinen.  
**KADETEEN OHOREZKO MAILA**  
**Orioko FT - Ostadar SKT**  
Igandea. 17:00. Mendibeltz, Orion.  
**KADETEEN 1. MAILA**  
**Hernani CD - Ostadar SKT A**  
Larunbata. 12:00. Zubipe, Hernanin.  
**Ostadar SKT B - Billabona KE B**  
Larunbata. 11:00 Michelinen.

**INFANTILEN OHOREZKO MAILA**  
**Euskalduna SD - Ostadar SKT**  
Larunbata. 12:30. Ubitarte, Andoainen.  
**INFANTIL TXIKIAK, SAILKATZE FASEA**  
**Añorga KKE - Ostadar SKT**  
Larunbata. 13:40. Rezola, Añorgan.  
**INFANTILEN 1. MAILA**  
**Lengokoak KE A - Ostadar SKT A**  
Larunbata. 14:00. Cesar Benito, Donostian.  
**Billabona KE - Texas Lasartearra CF**  
Larunbata. 10:00. Arratzain, Villabonan.  
**Ostadar SKT B - Aralar Intxurre KKE A**  
Larunbata. 14:15. Michelinen.  
**INFANTILEN F-8**  
**Ostadar SKT - Danena KE**  
Larunbata. 09:45. Michelinen.  
**ARETO-FUTBOLA**  
**NAZIONALA 3. MAILA**  
**Bazarre A.D. de Futbol 5 - Antiguoko KE**  
Larunbata. 12:00. Abetxuko kir., Gasteizen.  
**GIPUZKOAKO SENIORRA**  
**Herrikide - Aldaz Klinika**  
Ostirala. 20:50. Eskolapioak, Tolosan.

**GIPUZKOAKO 2. MAILA**  
**Futsal Isu Leihoak - Ostiko Sindikato**  
Ostirala. 20:50. Kiroldegian.  
**GIPUZKOAKO JUBENILEN MAILA**  
**Antiguoko Botaleku - Bar Lasarte**  
Larunbata. 12:30. Mons kirol., Donostian.  
**GIPUZKOAKO KADETEEN MAILA**  
**Mondrate CD - Balerdi Harategia**  
Igandea. 12:00. Musakola kirol., Arrasaten.  
**SASKIBALOA**  
**SENIOR EMAKUMEZKOAK**  
**Ostadar SKT - Atl. San Sebastian**  
Larunbata. 18:00. Kiroldegian.  
**SENIOR HIRUGARREN MAILA**  
**Mekalki Aloña Mendi KE - Ostadar SKT**  
Larunbata. 16:00. Zubikoa kirol., Oñatin.  
**JUNIOR ERRENDIMENDUA**  
**Easo Bankoa - Ostadar SKT A**  
Igandea. 10:00. Bidebieta kirol., Donostian.  
**JUNIOR PARTEHARTZEA**  
**Ostadar SKT B - BKL Igartza**  
Larunbata. 09:30. Kiroldegian.  
**KADETE ERRENDIMENDUA**  
**Ostadar SKT A - Bera Bera**  
Igandea. 09:30. Kiroldegian.

**KADETE PARTEHARTZEA**  
**Ostadar SKT B - Easo 04 Loyola**  
Igandea. 11:15. Kiroldegian.  
**PILOTA**  
**PROFESIONALAK, BIKOTEKA**  
**Arteaga II eta Iturriaga - Peña II eta Untoria**  
Astelehena. 16:30. Beotibar kirol., Tolosan.  
**MENDI DUATLOIA**  
**ADUNAKO I. MENDI DUATLOIA**  
**Herritar batzuk Adunako I. Mendi duatloian parte hartuko dute.**  
Larunbata. 15:00. Adunan.  
**LASTERKETA**  
**DONOSTIAKO MARATOIA**  
**Hainbat herritarrek Zurich Donostiako Maratoian, Maratoi erdian eta 10 km proban lehiatuko dute.**  
Igandea. 08:45. Donostian.  
**ERRUGBIA**  
**OHOREZKO B MAILA**  
**Durango Nissan-Gaursa RT - Babyauto Zarautz**  
Larunbata. 18:00. Durangon.

**EUSKAL LIGA**  
**Babyauto Zarautz Beltzak - Sarako Izarra**  
Igandea. 10:15. Michelinen.  
**18 URTE AZPIKOAK**  
**Bera Bera- Babyauto Zarautz Beltzak**  
Larunbata. 13:00. Donostian.  
**16 URTE AZPIKOAK**  
**Bera Bera- Babyauto Zarautz Beltzak**  
Larunbata. 11:30. Donostian.  
**12 ETA 10 URTE AZPIKOAK**  
**Federazioko jardunaldia dute.**  
Igandea. 10:30. Mutrikun.  
**IGERIKETA**  
**TEKNIFIKAZIOA**  
**Buruntzaldea IKT-ko Nerea Irazu Gipuzkoako Igeriketa Federazioko teknifikazio saioan izango da.**  
Larunbata. Paco Yoldi kirol., Donostian.  
**MENDIA**  
**IRTEERA**  
**Belarmeta mendi taldeak Buruntzara irteera egingo du. Ostean Xirimirin hamaitakoa izango da.**  
Larunbata. 09:30. Okendo plazan.



**11 EGUN EUSKARAZ**  
azaroaren 23tik abenduaren 3ra



**Ahobizi eta Belarriprest**  
**izateko gomendioak:**



**Ohiturak taldean aldatuko ditugu**

**Merezi du probatzea**

**11 egunez txapa agerian eraman**

**Aurreiritziak atzean utzi,  
erabakiari eutsi**

**Azaldu ingurukoei zein  
erabaki hartu duzun**

**Hitz egin esperientziari  
buruz beste parte-hartzaileekin**

Gomendio gehiago:



**Eskatu euskara!**



**Eutsi euskarari!**

